

**ZABALGUNEKO ERAIKINEKO COWORKING ESPAZIOA
ERABILTZEKO OINARRI ARAUTZAILEAK**

2024 -2025

Aurkibidea

1. Aurkezpena.....	1
2. Xedea.....	3
3. Kokapena.....	3
4. Onuradunak eta baldintzak.....	3
5. Sartzeko eskubidea emateko prozedura.....	4
a. Sartzeko eskaera.....	4
b. Aurkezpena eta baliozkotzea	5
c. Sarbide-kontrola	6
d. Erantzukizun zibileko aseguru.....	7
e. Lagapen-hitzarmena.....	6
6. Egonaldiaren iraupena	7
7. Kuotak.....	7
8. Betebeharrak eta ez-betetzeak.....	8
a. Betebehar orokorrak.....	8
b. Proiektuak garatzeko baldintzak.....	9
c. Lan-arriskuen prebentzioa	10
d. Ez-betetzeak eta ondorioak	10
9. Kuota ordaindu ezean aplikatuko den prozedura.....	11
a. Araudi-esparrua.....	11
b. Jarduteko prozedura	11
10. Ordutegia.....	11
11. Zerbitzuak.....	12
a. Instalazio eta zerbitzuetara sartzea	12
12. Datu pertsonalak babesteari buruzko oinarritzko informazioa.....	13
13. Dispentsa	13
14. Publizitatea	13
15. Programaren indarraldia eta garapena.....	14
16. Interpretazioa	14
I. ERANSKINA. Hileko kuotak.....	15

1) Aurkezpena

Bilbao Ekintza EPEL Bilboko Udalaren menpe dagoen entitate publiko bat da, Bilboko udalerrian ekonomia- eta gizarte-aberastasuna eragitea sustatzeko sortu zena. Horretarako, hiria bultzatzen du inbertitzeko leku erakargarri gisa eta enpresak sortzen eta hazten laguntzen du, laneratzeko aukerak hobetuz.

Entitate honen xedea bultzada ekonomikoaren eta hiria nazioartean kokatzeko ekimenaren gidarizatea da:

- Hiriko bizi-kalitatea bermatuko duen tokiko ekonomia-jardueraren garapena sustatuz.
- Turismorako nazioarteko erreferente gisa eta ekitaldiak erakartzeko ekonomia-jarduera garatzeko erreferente gisa eratuz.
- Inguruan enpresak sortzea eta haztea erraztuz, bai eta merkatu berrietara sartzea babestuz ere.

Beste helburu batzuen artean azken helburu hori lortzeko, Bilbao Ekintza EPELek Enpresa eta Enplegu Arlo bat du, eta besteak beste, helburu hauek ditu:

- Jarduera ekonomikoa sortzen duten enpresa eta saltoki berriak martxan jartzea sustatzea eta, ondorioz, udalerrian enplegua sustatzea.
- Hiriko enpresa eta saltokiei laguntzea beren lehiakortasuna hobetzen laguntza- eta aholkularitza-zerbitzuen bitartez, eta espazioak eta dinamikak sustatzea lankidetzak eta sinergien garapena bultzatzeko.

Horrekin lotuta, Zabalguneko Eraikina du. Helburua da Udalaren eta Bilbao Ekintzaren jardueraren elementu traktorea izatea hiria ekonomikoki dinamizatzeko Bilbao Ekintza enpresa-, enplegu- eta talentu-sustapenean gauzatzen ari den jarduera guztiaren kokapen edo sinboloan, hala, jarduera horri indar gehiago emanez eta ekosistema propioa sortzea posible eginez.

Bilbao Ekintzaren Ekintzailerria Unitatea Zabalguneko Eraikinean kokatuta dago eta bere helburua zerbitzu profesionala eta aditua eskaintzea da Bilbon jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzen duten sektore guztietako enpresa-proiektuak martxan jartzeko, udalerrientzat estrategikoak direnak lehenetsiz:

- Enpresa finkatzeko eta sortzeko prozesu osoan ekintzaileei arreta, aholkuak eta laguntza ematea.
- Enpresa-gaitasunak eta etorkizuneko negozioa eraginkorki kudeatzeko trebetasunak garatzeko prestakuntza eskaintzea.
- Hiriko sektore estrategikoen informazio eguneratua ematea, zerbitzuen katalogoa joera eta merkatu berriei egokitzuz.
- Sareko lana erraztea ekintzaitza ekosistemaren eragileekin.
- Gazteen artean ekintzaitza-kultura hedatzea gaitasunak garatzeko programen bidez, besteak beste, sormena, berrikuntza eta ekintzaitza, eta hori guztia, GJHein eta STEAM estrategiarekin lerrokatuta.

Helburu horrekin, Zabalguneko Eraikinaren barneko coworking espazio batean behin-behineko kokapena eskaintzen da. Espazio hori beren enpresa-proiektua analizatzen ari diren ekintzaileei eta sortu berriak diren enpresei zuzenduta dago, kasu bietan ere, Bilbao Ekintzaren laguntza jasotzen dutenak.

Adierazitakoan oinarrituta, Bilbao Ekintza EPELen Administrazio Kontseiluak 2024ko martxoaren 21eko bileran Bilbao Ekintzak kudeatutako Zabalguneko Eraikinean dagoen coworkingera sartzeko araudia onetsi zuen 2024-2025 urteetarako.

2) Xedea

Oinarri hauen xedea Zabalguneko Eraikineko coworking espaziorako sarbidea arautzea da.

Oinarri hauetako neurrien helburua da proiektua garatzeko eta enpresa-jardueraren lehen pausoak emateko Bilbon kokatu nahi duten enpresa-proiektuen sustatzaileei eta sortu berriak diren enpresei laguntzea. Horretarako, eskuragarri jartzen du udal-espazio hau, hala,aldi batean beren enpresa-proiektuak analizatu eta garatu ditzaten kokapen eta inguru egoki batean eta Zabalguneko Eraikineko baliabideak erabiliz. Modu horretan, eraikina erreferentziatzko leku bihurtuko da Bilboko ekintzaile, enpresa eta startuptentzat.

3) Kokapena

Coworking espazioa hemen dago kokatuta:

Zabalguneko Eraikina, Zabalguneko plazaren 11. zenbakian, 48009 BILBOn.

Lan egiteko partekatutako 110 m²-ko espazioa da eta bi eremutan bereizita dago; lehenengoan esleipen finkorik gabeko postuak daude eta beren negozioa analizatzen ari direnei zuzenduta dago,

eta bigarrenean esleipen finkodun postuak daude hiru urte baino gutxiago duten enpresetako ekintzaileentzako.

4) Onuradunak eta baldintzak

Coworking espazioko postuak erabili ahal izango dituzte baldintza hauek betetzen dituzten enpresa-proiektuek eta sortu berriak diren enpresek:

Esleipen finkorik ez duten postuak:

- a) Enpresa gisa eratu aurretik, ekintzaileak eta enpresa-proiektuak.
 - a. Enpresa-proiektuaren bideragarritasuna aztertzen egotea Bilbao Ekintzako ekintzailetza-unitateko zerbitzuen laguntzarekin.
 - b. Etorkizuneko enpresak Bilbon izatea sozietate- eta zerga-helbidea.
- b) Eratutako enpresak, hurrengo puntuan azaldutako esleipen finkodun postuetarako deskribatutako baldintzak betetzen dituztenak:

Esleipen finkodun postuak:

Eratutako enpresak.

- a. Bilbao Ekintzaren zerbitzuen laguntzarekin negozio-plana eginda izatea.
- b. Behar bezala eratuta eta erregistro egokian inskribatuta egotea eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren (IFZ) jabe izatea.
- c. Ekonomia-jardueren zergan altan emanda egotea hiru (3) urte baino gehiagokoa ez den antzinasunarekin eta lantokia Bilbon egotea edo espazioa okupatu baino lehen Bilbora lekualdatzeko asmoa izatea.
- d. Foru Ogasunari eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak egunean izatea.

5) Sartzeko eskubidea emateko prozedura

5.1 Esleipen finkorik gabeko postuak

Bilbao Ekintzaren laguntzarekin negozio-plana egiten ari diren enpresa-proiektuen sustatzaileek eta sortu berri diren enpresek esleipen finkorik gabeko coworking postuak erabiltzeko eskubidea izango dute. Horretarako, eskaera entregatuko diete zuzenean Ekintzaitza Unitatearen Bilbao Ekintzako teknikariei eta horiek eskaera-inprimakia emango diete atal honetan araututakoarekin bat etorritz.

Enpresa-proiektuen kasuan, eskaerarekin batera ekonomia jardueren gaineko zergan altan eman eta gero Bilbo udalerrian kokatzeko konpromisoa adierazten duen agiria aurkeztu beharko dute.

Sortu berriak diren enpresek oinarri hauetako 5. 2 a) puntuan deskribatutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute, bankuko datuen fitxa izan ezik.

Oso-osorik betetzen denean eta deskribatutako dokumentazioarekin batera, Bilbao Ekintzako teknikariei entregatu beharko zaie, eta espaziora sartzeko eskubidea baliozkotuko dute.

Esleipen finkorik gabeko coworking espazio horietarako sarbidea izenduna izango da. Horrenbestez, enpresa edo proiektu batean sustatzaile bat baino gehiago daudenean, bakoitzak bere eskaria bete beharko du espaziora sartzeko eskubidea izateko. Espazio guztietarako sarbidea unean-uneko erabilgarritasunaren menpe egongo da; aurretiazko erreserba-sistema baten bidez egiaztatuko da eta okupazio-denbora mugatuko da eta jakinarazi egingo da, eskariaren zein okupazioaren bilakaeraren arabera erabakiz.

5.2 Esleipen finkodun postuak

Modu iraunkorrean sarbide irekiko deialdi-sistema bat ezartzen da. Horren bitartez, eskaerak baliozkotu eta baimenduko dira aurkezten diren heinean. Hala eta guztiz ere, sarbidea unean-uneko erabilgarritasunaren menpe egongo da, eta itxarote-zerrenda bat sortuko da.

a) Espazioa erabiltzeko eskaera

Eskaera oinarri hauek onartzen direnetik aurrera eskatzaileentzat Bilbao Ekintzaren Zabalguneko Eraikineko Ekintzailletza Unitatean eskuragarri egongo den inprimakian formalizatuko da. Modu berean, oinarri arautzaileei eta eskaera-inprimakiari buruzko dokumentazio guztia Bilbao Ekintzaren webguneko LAGUNTZAK atalean eskuragarri egongo da: <https://www.bilbaoekintza.eus/>

Eskaera hurrengo dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko da:

- Ogasunarekin, Gizarte Segurantzarekin eta Bilboko Udalarekin ordainketak egunean izateari buruzko ziurtagiri eguneratuak izatea, baldin eta eskatzailea Bilbao Ekintzak datuak ofizioz egiaztatzearen aurka ageri bada.
- Ekonomia-jardueren gaineko zergaren alta-dokumentuaren kopia.
- Eraketa-eskirituraren kopia.
- Identifikazio Fiskaleko Txartelaren (IFZ) kopia.
- Bankuko datuak. "Bankuko datuen fitxa" inprimakiaren bitartez emango dira.

b) Aurkezpena eta baliozkotzea

Eskaerak oso-osorik eta ondo beteta egon beharko dira aurreko apartatuan aipatutako dokumentazioarekin, eta baliozkotzeko eta sarrera-erregistroa izateko aurkeztu beharko dira:

- Aurrez aurre, Bilbao Ekintzaren Ekintzailletza Unitatean, Zabalguneko Eraikinean
- Telematikoki: emprendimiento@bilbaoekintza.bilbao.eus

Eskaerak Bilbao Ekintzako teknikariek baliozkotu eta analizatuko dituzte egiaztatu eta gero oinarri hauetako 4. puntuko baldintza guztiak betetzen direla. Baliozkotze hori idatziz egingo dute sarrera-erregistroan sartu zireneko ordenari jarraikiz eta plazen eskuragarritasunaren menpe egongo da beti.

Eskabideak jaso ondoren ez badaude erabat beteta edo ez bazaie beharrezko dokumentazio osoa atxiki, eskatzaileei eskaera egingo zaie, azalduz gehienez ere hamar (10) egun balioduneko epean falta dena konpondu beharko dutela edo nahitaezko agiriak aurkeztu beharko dituztela. Horrez gain, ohartarazpena egingo zaie esanez horrela egin ezean eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela, eta beste izapiderik gabe espedientea artxibatuko da; Bilbao Ekintzak ez du eskaera horren gaineko berariazko ebazpenik eman beharko.

Horrenbestez, eskaera balorazioa egiteko aurkeztutzat joko da eskaera betetzen denean edo,

kasuan kasu, zuzenketa egokiak aurkezten direnean.

Esleipen finkodun espazioak erabiltzeko baldintzak bete arren, une horretan espazio erabilgarriak ez dagoelako lan egiteko posturik eskuratu ezin duten eskariak itxarote-zerrenda batean sartuko dira eta eskaerak erregistroan sartu zireneko ordenaren arabera antolatuko dira.

Eskaerak Bilbao Ekintzaren Zuzendaritzak ebatziko ditu eta berariaz eta pertsonalki jakinaraziko zaizkie eskaerak aurkeztu dituztenei.

Sartzeko eskubidea ematen duen ebazpen-jakinarazpenean adieraziko da baimendutako gehieneko egonaldi-denbora eta zein den okupatu beharreko postua.

Eskaera-inprimakian eskatutako postu-kopurua adierazi beharko da. Enpresa bakoitzak gehienez ere bi postu eskatu ahalko ditu eta proiektuaren sustatzaileek erabili ahalko dituzte bakarrik.

Interesdunek eskaera aurkezteak oinarri hauen edukia onartzea ekarriko du.

c) Sarbide-kontrola.

Coworking espaziora sartu ahal izango dira bakarrik jakinarazitako esleitutako postua erabiltzeko, eta oinarri hauetako 10. puntuan ezarritako ordutegia errespetatu beharko da.

Coworking espaziora sartzen den edo bertan geratzen den orok bere burua identifikatu eta presentzia justifikatu beharko du, arduradunek hala eskatzen badiote.

d) Erantzukizun zibileko aseguru

Espazioa okupatu aurretik, **lan egiteko postu finkoak esleitzen zaizkien enpresek** erantzukizun zibileko aseguru kontratatu beharko dute, jardueran aritzeak, instalatutako mekanismoen funtzionamenduak eta abarrek okupatutako espazioari, instalazio eta elementu komunei, hirugarrenei eta beste onuradun batzuei sor diezazkieketen kalte pertsonal eta materialak estaltzeko, baita material eta ekipamendu propioak estaltzeko ere.

Lagapen-hartzailea bere ekintzen erantzule izateaz gain, Bilbao Ekintzak lagatako espazioan bere erantzukizunpean dauden pertsonen ekintzen eta kalteen erantzule izango da, bai ondorioz kontratua bertan behera uzten denean, bai kalte eta galerengatik kalte-galerak ordaindu behar direnean.

Kontratututako aseguru-polizaren kopia bat aurkeztu beharko dute ordainketa egin izanaren

agiriarekin batera, gehienez ere hamabost (15) eguneko epean, betiere lagapenaren indarraldia hasi aurretik.

Polizan honako datu hauek agertuko dira: Coworkingaren helbidea, okupatuko den espazioaren zenbakia, solairua, erabiltzaileak eta estaldura. Aseguru-polizak indarrean egon beharko du lagapen-hitzarmenaren indarraldi osoan.

e) Lagapen-hitzarmena

Espazioa okupatu aurretik eta Bilbao Ekintzari nahitaezko dokumentazioa entregatu ondoren (eratutako enpresen kasuan, erantzukizun zibileko aseguruaren poliza barne) Bilbao Ekintzak hitzarmen bat sinatuko du lagapen-hartzaile bakoitzarekin, eta bertan jasoko dira espazio hori erabiltzeko lagapenaren baldintza arautzaile orokorrak zein zehatzak.

6. Egonaldiaren iraupena eta baldintzak

Enpresa-proiektuen kasuan, hau da, bakarrik **esleipen finkorik ez duten postuak erabili** ditzaketenak, postuak erabili ahalko dituzte **beren etorkizuneko negozioen bideragarritasuna aztertzen ari diren bitartean**. Orokorrean **sei hilabeteko epea** ezarriko da, Bilbao Ekintzarekin negozio-plana garatzeko adostutako konpromisoaren arabera. Erreserbak eguneko bi orduko txandetan egin ahalko dira. Egunean gehienez ere hiru txanda eta astean hiru egunetan erreserbatu ahalko dira.

Bestalde, **sortu berriak diren enpresek hasiera batean espazioa gehienez ere urtebetez erabili ahalko dute**, eta epe hori luzatu ahal izango da iraupen berberean aurretiaz eskaerak aurkeztuta, edo azken luzapena denean, hiru (3) urteko epea osatu arte geratzen den denboran. Baldintza hori baliozkoa izango da esleipen finkodun zein esleipen finkorik gabeko espazioak erabiltzeko.

Esleipen finkodun postuen kasuan, lagapen-hartzaileak hitzarmena bukatu baino lehen deuseztatu ahal izango du, baldin eta Bilbao Ekintzari idatzizko eskabide formalaren bidez jakinarazten badio, gutxienez hilabete bat (1) igaro baino lehenago.

Bilbao Ekintza EPELeK, bere jardueraren beharregatik edo bestelakoengatik eta antolamendu-arrazoiak edo ezinbestekoak direla-eta epea bukatu baino lehen espazioa eskuragarri izan behar badu, espazioa erabiltzeko baimena dutenei jakinaraziko die, eta azken horiek ez dute inolako erreklamazio edo konpentsaziorako eskubiderik izango.

7. Kuotak

Esleipen finkorik gabeko coworkingeko postuak **doan** erabiliko dira, **bai enpresa-proiektuetarako, bai eta sortu berriak diren enpresetarako ere.**

Esleipen finkodun postuak erabiltzen dituzten enpresa sortu berriek **hileko kuota** ordaindu beharko dute.

Lagapen-hartzaileak emandako espazio-lagapenari dagokion hilabeteko kuota ordaindu beharko du (postu guztiei dagokiena).

Sustatzaile bakoitzak hilean ordaindu behar duen kuotaren zenbatekoa Bilbao Ekintzako Administrazio Kontseiluak urtero onetsitako oinarrietan erabakitako prezioari lotuta dago.

Bilbao Ekintzako Administrazio Kontseiluak onetsitako oinarrien I. eranskinean zehaztu dira 2024. eta 2025. urteei dagozkien kuotak, bai banakako gutxieneko zerbitzuak, bai 11.a) puntuan aipatutako zerbitzu orokorrak barnean hartzen dituztenak ere.

Kuotak eguneratzen badira, Bilbao Ekintzako Administrazio Kontseiluak onartuko dituen oinarrien eranskinean argitaratuko dira.

Kuota ordaindu ezean, oinarri hauen 9. apartatuan zehaztutako prozedura aplikatuko da.

8. Betebeharrak eta ez-betetzeak

a. Betebehar orokorrak

- a) Lagatako espazioa erabiltzeko eskubidea pertsonala eta besterenezina da, eta ezin izango da errentan eman edo laga, ez osorik ezta zati bat ere, ez doan eta ez behin-behinekoz ere. Lagatako espazioa bakar-bakarrik esleitua izan den proiektua garatzeko edo jarduera egiteko erabiliko da.
- b) Zereginak egikaritzean hitzarmen horren xedeari buruz eskatutako informazio guztia eman beharko da eta puntualki informazioa eman beharko da Bilbao Ekintzarekin hitzartutako baldintzak aldatzen direnean.
- c) Coworking espazioetan lanean dauden pertsonen kopurua aldatu nahi izanez gero, Bilbao Ekintzari idatziz jakinarazi beharko zaio lehenago (bakarrik esleipen finkodun postuen kasuan).

- d) Instalazioak eta elementu komunak ondo erabiltzea, baita banakako zerbitzuak ere.
- e) Espazio bakoitzaren segurtasuna lagapen-hartzaileen ardura izango da.
- f) Jarduera hasteko eta garatzeko beharrezko administrazio-baimenak eta lizentziak izan beharko dituzte, horri dagokionez indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik (bakarrik sortutako enpresei dagokienez).
- g) Enpresa batek okupatzen dituen postuen kopurua inolaz ere ezin izango da bitik (2) gorakoa izan.
- h) Esleipen finkodun postuetan, lagatako espazioan lagapenaren egunetik aurrera gehienez ere hamabost (15) egun natural igaro baino lehen hasi beharko dute jarduera.
- i) Espazioa erabiltzeko moduan mantendu beharko dute. Salbuespen gisa eta proposamen arrazoituaren bitartez, Bilbao Ekintzak erabilera aldi baterako etetea baimendu ahal izango du. Espazioa behin betiko erabiltzeari uzten badio, entregatu zen baldintza berberetara lehengoratu beharko du.
- j) Kasuan kasuko espazioan egonaldia bukatu ondoren, lagapen-hartzaileak bere gauza guztiak kendu beharko ditu bertatik. Bestela, Bilbao Ekintzak gauza horiek kendu ahalko ditu, eta egonaldia bukatzen den unetik bi (2) aste igaro ondoren suntsitu ahal izango ditu.
- k) Lagapen-hartzaileek elementu komunak erabiltzeko eskubidea dute, baldin eta gainerakoei erabiltzea oztopatzen ez badiete, eta Bilbao Ekintzak ezarritako arauak betetzen badituzte. Izan ere, azken horrek ebatziko ditu gaiaren inguruan sor daitezkeen gatazkak.
- l) Ez da onartuko zentroan animaliarik sartzea.
- m) Eta, oro har, oinarri hauetan adierazten diren guztiak, baita lagapen-hitzarmenean aipatzen diren betebeharrak ere.

b. Proiektuak garatzeko baldintzak

Diruz lagundutako proiektuen garapenak ezin izango ditu urratu hirugarrenei legezko edozein tresnaren bitartez aitortutako eskubideak, nazioartekoak zein estatukoak, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala barne.

Halaber, 1083/2006 Araudiko (EE), I. tituluko IV. kapituluko 16. eta 17. artikuluetan jasotako oharren arabera, Bilbao Ekintzak enpresei eta enpresak sortzeko proiektuei laguntzeko dituen tresnen bitartez, erakunde onuradunek gauzatzen duten merkataritza-praktikak errespetatu

egin beharko ditu araudi horretan jasotako irizpideak; horrenbestez, ingurumena babestu eta hobetzeko sustapenarekin eta garapen iraunkorarekin zerikusia duten jardunbide egokien inguruan sentsibilizatzea bilatuko du, bai eta enpresen barruan lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari lotutako jardueri dagokienez ere. Halaber, sexuan, arrazan edo jatorri etnikoan, erlijioan zein sinesteetan, desgaitasunean, adinean edo sexu-orientazioan oinarritutako diskriminazioaren aurka eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egingo da.

Bukatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuarekin bat eginez, onuradunek proiektua eratzean eta garatzean lehentasunez euskara eta gaztelania erabiliko dituzte, albo batera utzi gabe beste hizkuntza batzuk erabiltzea proiektuak hala eskatzen duenean.

c. Lan-arriskuen prebentzioa

Bilbao Ekintzak ezarritako laneko arriskuen prebentzioaren araudi orokorra errespetatu beharko du lagapen-hartzaileak eraikin osoari dagokionez, betiere lanpostuei dagokien prebentzioaren araudia zuzenean betetzeari kalterik egin gabe, baita lanpostu horiek betetzen dituzten langileen osasun-baldintzei dagokienez ere.

Horrez gain, lagapen-hartzaileak Bilboko udal-entitateen prebentzio-zerbitzu mankomunatuak egindako gomendioak betetzeko konpromisoa ere hartzen du, dagokion eskumenen barruan eta betiere programa betearazteko garatzen den jarduerak ondorio horietarako eragina duela ulertzen bada.

d. Ez-betetzeak eta ondorioak

Ezarritakoa ez betetzea eta ondorioz lagapen-hartzaile bakoitzarekin sinatutako hitzarmena desgitea Bilbao Ekintzako Zuzendaritzaren ebazpenez deklaratuko dira; ebazpena behar bezala jakinaraziko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan jasotako moduan. Ebazpen horren aurretik, *Zabalguneko Eraikineko Coworking Espazioaren* kudeaketaz arduratzen diren teknikariek gaiari buruzko txostena egingo dute.

Lagapen-hartzaileak ordainketa-betebeharrak ez betetzearen ondorioz hitzarmena desgitea deklaratzeko, nahikoa izango da dagokion kuota epe barruan ordaindu gabe lehen aldiz utzi

duenean hori jakinaraztea.

9. Kuota ordaindu ezean gauzatzeko prozedura

a. Araudi-esparrua

Lagapen-hartzailearen betebeharrak ez betetzearen ondorioak lanerako espazioen lagapenari aplikatzen zaizkion urteko oinarrietan jasota daude, baita horretarako sinatzen diren hitzarmenetan ere, eta horien artean dago hitzarmena desegitea.

Betebeharrak ez betetzea eta horren ondorioz hitzarmena desegitea Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritzaren ebazpenaren bidez deklaratuko dira. Aldez aurretik dagokion teknikariak gaiari buruzko txostena bidaliko du.

b. Jarduteko prozedura

- a) Kontabilitate Zerbitzuak postuen okupazioaren hileko kuotak fakturazio-hilabetean bertan ematen ditu.
- b) Ondoren, Kontabilitate Zerbitzuak itzulitako ordainagiriak detektatuko ditu, eta akatsik egon ez dela egiaztatu ondoren, *Zabalguneko Eraikineko* coworking espazioa kudeatzeko izendatutako pertsona lagapen-hartzailearekin harremanetan jarriko da, gorabeheraren arrazoia ezagutzeko eta Kontabilitate Zerbitzuak ordaindu ez den ordainketa erreklamatuko du.
- c) Bilbao Ekintzak kasuan-kasuko inguruabarrak aztertu ahal izango ditu (enpresa/proiektuaren ibilbidea, oraingo egoera, aukerak...) eta baloratuko du ordainketa berehala egiteko eskatu behar den ala, aitzitik, komeni den geroratzea edo ordainketa-baldintza jakin batzuk ezartzea; azken horiek Bilbao Ekintzak idatziz jakinaraziko dizkio erabiltzaileari.
- d) Izapide horren ostean kuotak ordaintzen ez badira, jarduketak Aholkularitza Juridikora bideratuko dira, bidezkotzat jotzen dituen jardunbideak abian jar ditzan.

10. Ordutegia

Espazioak erabiltzeko ordutegia Zabalguneko Eraikinaren irekiera-ordutegi eta -egutegiarekin bat etorriko da.

Ordutegia urte osoan zehar: Astelehenetik ostiralera, jaiegunak ez ezik, 07:30etik 20:00etara.

Justifikatutako arrazoiengatik ordutegia murrizten bada, aurretiaz erabiltzaileei jakinaraziko zaie.

11. Zerbitzuak

- Zerbitzu orokorrak:
 - Garbiketa eta mantentze-lanak.
 - Berogailua eta aire girotua.
 - Ura eta argindarra.
 - Zabalguneko Eraikinean eskainitako Internet konexioa erabiltzea nahitaez; galarazita dago nork bere operadorea kontratatzea.
 - Funtzio anitzeko inprimagailuaren zerbitzuak. Bilbao Ekintzak ez du paperik emango, baina zerbitzuak zuzen funtzionatzeko tonerra bere kargura izango da.
 - Eskuragarritasunaren arabera, Zabalguneko Eraikineko atariko espazio komunak erabiltzea.

Esleipen finkodun postuak erabiltzen dituzten enpresen kasuan:

- Banakako zerbitzuak (enpresa-espazioetako altzariak):
 - Mahaia.
 - Aulkia.
 - Armairua.

Ezin izango da sartu eraikinera coworking espazioa okupatzen duen elementurik, hala nola altzariak edo beste ekipamendu batzuk.

- Lagapen-erregimenean Zabalguneko Eraikineko coworking espazioko lanerako postu bat okupatzea.
- Enpresa sortu berriek beren egoitza soziala Zabalguneko Eraikineko coworking espazioan kokatu ahal izango dute lagapena bukatu arte.

Esleipen finkorik gabeko postuak erabiltzen dituzten enpresa-proiektuen eta enpresa sortu berrien kasuan:

- Aurretiazko erreserba egin ondoren, Zabalguneko Eraikineko coworking espazioko lanerako postu bat okupatzea.
- Banakako zerbitzuak (enpresa-espazioetako altzariak):
 - Mahaia.

- Aulkia.
- Armairua.
- Lehetasunezko sarbidea dinamikak, erakustaldiak, foroak eta bestelako dinamizazio-jarduerak egiten direnean, enpresa-proiektuekin lotuta daudenak eta zentroan antolatuko direnak.
- Enpresa sortu berriek beren egoitza soziala Zabalguneko Eraikineko coworking espazioan kokatu ahal izango dute enpresak hiru urte izan arte.

12. Datu pertsonalak babesteari buruzko oinarrizko informazioa

Datuak babesteko indarreko araudian xedatutakoarekin bat etorriz, Bilbao Ekintza EPELek jakinarazten du deialdi honetako eskarietan dauden datu pertsonalak Bilbao Ekintza EPELek tratatuko dituela. Helbidea Bilboko (48001) Nafarroa kaleko 5. zenbakian du, eta tratamenduaren helburua izango da eskatutako laguntzak eta/edo dirulaguntzak kudeatu eta izapidetzea.

Datuak beharrezko denboran gordeko dira beren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizun posibleak zehazteko.

Tratamendu horien oinarria tratamenduaren arduradun den Bilbao Ekintza EPELi emandako botere publikoak egikaritzea da.

Ez zaizkio datuak beste inori emango, salbu eta legez derrigorrezkoa bada. Ez da egingo datuen nazioarteko transferentziarik.

Hauexek dira interesdunen eskubideak:

1. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta mugatzeko edo tratamenduaren aurka agertzeko eskubidea, tratamenduaren arduradunaren helbidera idatzi bat bidaliz, nortasuna aldeztatik egiaztatuta.

2. Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamatzeko eskubidea

BILBAO EKINTZA EPELek egiten dituen datu pertsonalen tratamenduei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, datos@bilbao.eus helbidean informazioa eska daiteke.

13. Dispentsa

Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiak, teknikarien txostena jaso ondoren eta haien

proposamenez, salbuespen gisa, arrazoiak emanaz eta inguruabar partikularrak kontuan hartuta, oinarri hauetan ezarritako gutxieneko eskakizun eta baldintza batetik edo batzuetatik salbuetsi ahal izango du eskatzailea.

Dispentsak ematea behar bezala arrazoituta egongo da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35.i) artikuluan xedatutakoa betez.

Dispentsa-eskaera sartzeko eskaera-idatziarekin batera aurkeztu beharko da, eskatutako dispentsa justifikatzen duten dokumentuekin batera.

14. Publizitatea

Lagapen-hartzaileak Bilbao Ekintzaren edo Zabalguneko Eraikinaren logoa edozein bitartekoren bidez (idatzizkoa, ikus-entzunezkoa edo elektronikoa) enpresek edo proiektuek egiten dituzten jarduera partikularren publizitatea egiteko erabili behar badu, aldez aurretik, Bilbao Ekintzaren onarpen esplizitua beharko du.

Erabiltzaileek ezingo dute eraikinean inolako publizitaterik jarri enpresaren jarduerarekin berariaz lotuta ez badago.

15. Programaren indarraldia eta garapena

Programa honen oinarriak aplikatuko zaizkie onartzen direnetik aurrera aurkeztzen diren eskaera guztiei eta guztira bi (2) ekitalditan zehar, salbuetsiz oinarri hauetako I. eranskinetako kuotak, urtean behin eguneratu ahalko direnak.

Hala ere, oinarri hauen indarraldia bukatu eta gero ere erabili ahal izango dira oinarriok, Bilbao Ekintzako Administrazio Kontseiluak hurrengo ekitaldirako oinarriak onartu bitartean, baldin eta Bilbao Ekintzak hemen araututako zerbitzuen prestazioa etetea erabakitzen ez badu.

16. Interpretazioa

Bilbao Ekintzak eskubidea du egoera zalantzarrietan oinarri hauek interpretatzeko aplikatzeko moduaren inguruan zalantzak sor ditzaketen egoera guztietan, eta bere erabakiak behin betikoak eta apelaezinak izango dira.

Oinarriak indarrean dauden bitartean, bertan kontuan hartzen diren alderdietako baten bat garatu behar bada edo programa funtsean aldatzen ez duen egokitzapenen bat egin behar bada, Administrazio Kontseiluak eskumena ematen dio Bilbao Ekintza EPELen Zuzendaritzari aldaketa horiek egiteko. Zuzendaritzak aldaketak egin ondorengo lehen bileran emango dio Kontseiluari aldaketen berri.

I. ERANSKINA. Hileko kuotak

Sortutako enpresentzako esleipen finkodun postuen kasuan eta oinarriak indarrean dauden bitartean, hauek izango dira hileko kuotak (BEZa kanpo) sustatzaile-kopurua kontuan hartuta:

POSTU-KOPURUA	PREZIOA (BEZik GABE)
1	40 €
2	80 €

Kuotak Bilbao Ekintzako Administrazio Kontseiluak onetsitako oinarrietan ezarritakoarekin bat eguneratuko dira.